DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa

## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2019ko martxoaren 28an** / 28 de marzo de 2019<br>**Ghandi Aretoa (Aieteko Jauregia)** / Sala Ghandi (Palacio de Aiete)<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.<br>(ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2018-12-13) | 1 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.<br>(ver en los archivos adjuntos el borrador del acta de 13-12-2018) |
| Aurkezpen erronda | 2 | Ronda de presentación |
| Kontseiluko kide berrien aurkezpena: Elizbarrutietako Misioak. | 3 | Presentación de nueva entidad: Misiones Diocesanas. |
| Kontseiluak 2019rako duen lan-plana aurkeztea eta ekainean saio monografikoa egiteko planteamendua. | 4 | Presentación del plan de trabajo del consejo para el año 2019 y planteamiento de sesión monográfica en junio |
| 2018ko memoria aurkeztea, departamentuarena. | 5 | Presentación de la memoria 2018 del departamento. |
| Bukatzera doan legealdi honetan izandako lankidetzaren ebaluazio bateratua egitea.<br>Metodologia: Erronda bat egingo da bikoitzak *tweet* edo esaldi batean esan dezan zerbait positiboa eta hobetu beharreko beste zerbait. Beraz, ekarpenak aldez aurretik pentsatuak ekartzea gomendatzen da. | 6 | Evaluación conjunta de la cooperación en la legislatura que termina.<br>Metodología: Se realizará una ronda en la que cada persona diga en la longitud de un *tweet* o frase algo positivo y algo a mejora. Se recomienda traerlo pensado. |
| Departamentuak 2019rako duen plan operatiboa aurkeztea. | 7 | Presentación del plan operativo del departamento para 2019. |
| Informazio orokorrak:<br>• 2019ko diru-laguntza deialdiaren egoera | 8 | Informaciones varias:<br>• Situación de la convocatoria de subvenciones 2019 |
| Galderak eta eskaerak. | 9 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 10 | Información sobre próximas actividades. |

10740n XVII

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE - Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE - Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EH-BILDU<br>• IRABAZI<br>• PSE-EE |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ALBOAN<br>• BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA-ACPP<br>• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• ELIZBARRUTIETAKO MISIOAK<br>• EMAUS<br>• INTERED<br>• INTERMON OXFAM<br>• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (ICLI)<br>• LUMALTIK<br>• MUGARIK GABE<br>• MUNDUBAT<br>• PROSALUS<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• SETEM<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNICEF<br>• UNRWA EUSKADI<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • ADSIS<br>• CRUZ ROJA<br>• MEDICUS MUNDI<br>• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK<br>• MUGEN GAINETIK<br>• PROCLADE YANAPAY<br>• SODEPAZ<br>• PP |

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 27 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).<br><br>• **Emakumezkoak /** Mujeres = **14**<br>• **Gizonezkoak /** Hombres = **10**<br><br>27 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre). |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471<br>lankidetza@donostia.eus |

10740n XVII

## SAIOAREN BILAKAERA:
## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| Hasi aurretik, adierazi dute Kontseiluaren data aldatu dutela, aurrekoa ez zelako komeni, Aldundiaren deialdiaren amaierarekin bat egiten zuela eta. | Antes de comenzar se explica que se ha modificado la fecha del Consejo, ya que la fecha anterior no era conveniente debido a la coincidencia con el final de la convocatoria de Diputación. |
| **1.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.** | **1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.** |
| Aurreko akta onartu da, aldaketarik gabe. | Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación. |
| **2.- Aurkezpen erronda.** | **2.- Ronda de presentación.** |
| Ronda bat egiten da bertaratutakoak ezagutzeko. | Se realiza una ronda para conocer a las personas asistentes a la reunión. |

**3.- Kontseiluko kide berrien aurkezpena: Elizbarrutietako Misioak.**

Elizbarrutiko Misioak aurkeztu dituzte, Kontseiluan sartu berriak direla eta.

**3.- Presentación de nueva entidad: Misiones Diocesanas.**

Se presenta Misiones Diocesanas, que se acaba de incorporar al Consejo.

**4.- Kontseiluak 2019rako duen lan-plana aurkeztea eta ekainean saio monografikoa egiteko planteamendua.**

Batzorde Iraunkorraren proposamenak:

- Aurkezpen txanda bat egitea saio guztietan.
- Urteko lehen saioan, martxokoan, atalaren lan plana eta memoria aurkeztea. Horren barruan sartuta egongo da Kontseiluarena ere.
- Bigarren bilera ekainerako dago aurreikusia, baina, ziurrenik, gobernua ez da egongo eratua oraindik; horregatik, litekeena da ohiko bilkura egiterik ez izatea. Batzorde Iraunkorra bilduko da, eta hark aztertuko du zer egin daitekeen.
- Iraileko saioan, agintaldiaren hasierarekin bat, parte hartzaileen zerrenda eguneratuko dute. Bileretara etortzen ez diren erakundeen errepasoa egingo dute, eta kide izaten jarraitzeko benetako asmorik baduten galdetuko zaie. Batzorde Iraunkorreko lehendakariordetza eta kideak berrituko dituzte. Bestalde, martxan jarriko dute dirulaguntzen lan taldea, hala erabakitzen badute, bai eta sortzen den beste edozein talde ere.

**4.- Presentación del plan de trabajo del consejo para el año 2019 y planteamiento de sesión monográfica en junio:**

Propuestas de la Comisión Permanente:

- Realizar una ronda de presentación en todas las sesiones.
- En la primera sesión del año, la de marzo, presentación del plan de trabajo y de la memoria del departamento, en la que también se recoge la del Consejo.
- La segunda sesión está prevista para junio, pero seguramente entonces el nuevo Gobierno no estará aún constituido, por lo que es probable que no se pueda realizar la sesión ordinaria. Se reunirá la comisión permanente, y analizará lo que se puede hacer.
- En la sesión de septiembre, con el inicio de legislatura se actualizará la lista de participantes, realizando un repaso de entidades que no suelen acudir, y se les preguntará si tienen intención real de seguir siendo miembro. Se renovarán los cargos de vicepresidencia y 2 de las vocalías de la Comisión Permanente. También se pondría en marcha el grupo de trabajo de subvenciones si así se decide, además de cualquier otro grupo que surja.

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

- Urteko azken bileran, abendukoan, dirulaguntzen deialdiaren berri emango dute, bai eta udal aurrekontuarena ere. Lan taldeek egindako lanaren berri emango dute, eta Udalaren plan gidaria berritzeko nola lan egin daitekeen aztertuko dute, betiere partaidetza bidez.

Ildo horretan, Batzorde Iraunkorrean planteatu zen ekaineko bilerara gonbidatu zitezkeela plan gidariak egiteko prozesu interesgarriak izan dituzten beste udalerri batzuk (adibidez, Bartzelona).

Erabaki dute GGKEen Koordinakundeak erreferentziak eskatuko dituela Estatuko Koordinakundean, eta lankidetza bulegoak, berriz, FEMPn, Aecid-en, Euskal Fondoan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian. Ondoren, informazioa trukatuko dute.

Erabaki dute irailerako uztea beste plan gidariei buruzko hausnarketa.

- En la última sesión del año, la de diciembre, se dará cuenta de la convocatoria de subvenciones, así como del presupuesto municipal. Se dará cuenta del trabajo realizado por los grupos de trabajo, y se verá cómo trabajar participativamente la renovación del Plan Director municipal.

En este sentido, en la Comisión Permanente se planteó la posibilidad de invitar a la sesión de junio a otros municipios que hayan tenido procesos interesantes de elaboración de sus planes directores, como por ejemplo Barcelona.

Se acuerda que la Coordinadora de ONGD preguntará por referencias en la Coordinadora Estatal, y desde la oficina de cooperación en la FEMP, Aecid, Euskal Fondoa y AVCD. Después se intercambiará la información.

Se acuerda dejar para septiembre la reflexión sobre otros planes directores.

## 5.- 2018ko memoria aurkeztea, departamentuarena.

Memoriaren laburpena egin dute. Laster egongo da webgunean eskuragarri: (acceso Memoria 2018)

Irabazik gogorarazi du 80 udalerrik baino gehiagok egin dutela bat paradisu fiskalik gabeko hirien adierazpenarekin, eta galdetu du Donostiak zergatik ez duen bete plan gidariko konpromiso hori. Zinegotziak azaldu du finantza atalak ez duela ikusten hori aurrera eraman daitekeenik, zailtasun teknikoak direla eta, baina ahaleginak egiten jarraituko dutela.

## 5.- Presentación de la memoria 2018 del departamento.

Se realiza un resumen de la memoria, que en breve estará disponible en la web. (acceso Memoria 2018)

Irabazi, recuerda que más de 80 municipios se han sumado a la declaración de ciudad libre de paraísos fiscales, y pregunta por qué Donostia no ha cumplido este compromiso del Plan Director. La concejala explica que desde el departamento financiero no veían posible llevarlo a cabo por dificultades técnicas, pero se seguirá intentando.

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

GGKEen Koordinakundearen ordezkariak egindako lana baloratu du. Aurrekontuaren kalkuluari dagokionez, gogora ekarri du abenduko kontseiluan planto egin zutela, eta gai hori behin eta berriz errepikatzen dela Kontseiluan. Gogoratu du, halaber, duela urte batzuk, pobreziaren aurkako itunean, Udalak konpromisoa hartu zuela erosketa eta kontratazio publiko etikoa bultzatzeko, baina gai hori geldirik dagoela. Koordinakundeak planteatu du lan talde bat sortzea politiken koherentzia lantzeko, eta adierazi du horretarako erabil dezaketela Koordinakundearen politiken koherentziari buruzko diagnostikoa.

El representante de la coordinadora de ONGD valora el trabajo realizado. Respecto al cálculo del presupuesto, recuerda el plante que se realizó en el consejo de diciembre, y que este tema se repite una y otra vez en el Consejo. Recuerda también que ya hace años en el pacto contra la pobreza el Ayuntamiento se comprometió con la compra y contratación pública ética, sin embargo el tema está parado. Desde la Coordinadora plantean hacer un grupo de trabajo con el tema de coherencia de políticas, para el que se puede utilizar el diagnóstico de coherencia de políticas de la Coordinadora.

Zinegotziak erantzun du ezin duela etorkizunerako konpromisorik hartu, ez baitakite gero nor egongo den. Berak jarraitzen badu, lanean segituko du, aurrerapenak egon daitezen.

La concejala responde que no se puede comprometer a nada en el futuro, ya que se sabe quién va a estar. Si sigue ella, seguirá trabajando para que haya avances.

GGKEen Koordinakundeko ordezkariak galdetu du ea ezin duten bilera bat egin finantza atalarekin, zuzenean galdetzeko zer zailtasun dituzten.

El representante de la coordinadora de ONGD pregunta si no es posible realizar una reunión con el departamento financiero y poder preguntarles de primera mano qué dificultades encuentran.

## 6.- Bukatzera doan legealdi honetan izandako lankidetzaren ebaluazio bateratua egitea.

## 6.- Evaluación conjunta de la cooperación en la legislatura que termina.

Batzorde Iraunkorrari eskatu zitzaion agintaldiaren balorazio bateratu bat egiteko, partaidetza bidez. Kontseiluko kide bakoitzari eskatu diote bi esaldi idazteko; batean, balorazio positibo bat egin behar dute, eta bestean alderdi negatiboren bat edo hobetu beharko litzatekeen bat adierazi behar dute. Hiru minutu utzi dituzte idazteko; gero horiek bildu eta papelografo batean jarriko dituzte.

En la Comisión Permanente se pidió que se hiciera una valoración conjunta de la legislatura, de manera participativa. Se pide a cada integrante del Consejo que escriba una frase con una valoración positiva y otra de algún aspecto negativa, o que tendría que mejor. Se dejan 3 minutos para escribir, luego se recogerán y se plasmarán en un papelógrafo.

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Alderdi positiboen artean azpimarratu dituzte bileretan izandako parte hartzea eta adierazpen askatasuna (4 pertsona), eta bai lan talde teknikoa ere (12 pertsona). Horrez gain, ondo balioetsi dituzte plan gidaria egiteko prozesua, talde politikoen prestasuna, eta Kontseiluak sektoreko beste erakunde batzuk ezagutzeko ematen duen aukera.

En la parte positiva, destacan la buena valoración de la participación y de la libertad de expresión en las reuniones (4 personas), así como el personal técnico (12 personas). También se valoraron el proceso de elaboración del Plan Director, la disposición de los grupos políticos, o la ocasión que ofrece el consejo de conocer a otras entidades del sector.

Hobetu beharreko alderdien artean aipatu dituzte aurrekontuarekin lotutako kontuak (10 pertsona), bai eta konpromiso politikoaren falta ere (4 pertsona). Horiez gain, aipatu dute ez dela aurreratu politiken koherentzian, batez ere Lankidetza Atalarenak diren alderdiak ere aipatu dituzte, hala nola konexio handiagoa behar dela garapen jasangarriaren helburuekin, eta ordaintzeko orduan atzerapenak izan direla ere adierazi dute.

Como aspectos a mejorar, la mayoría mencionaron aspectos relacionados con el presupuesto (10 personas), así como la falta de compromiso político (4 personas). La falta de avances en coherencia de políticas o aspectos más del departamento de cooperación, como la necesidad de mayor conexión con los ODS, o demoras en los pagos también fueron mencionados.

Hobetu beharreko puntu gisa, euskararen erabilera aipatu dute. Erantzun dute bilerak osoko bilkuren aretoan egiten dituztenean izaten dela itzulpen zerbitzua, baina Aieten ez dagoela halako zerbitzurik.

Se menciona como punto a mejorar el uso del euskera. Se responde que cuando las sesiones se hacen en el salón de plenos está garantizada la traducción, sin embargo en Aiete no existe ese servicio.

## 7.- Departamentuak 2019rako duen plan operatiboa aurkeztea.

## 7.- Presentación del plan operativo del departamento para 2019.

## 8.- Informazio orokorrak:

## 8.- Informaciones varias:

### 2019ko diru-laguntza deialdiaren egoera

Martxoaren 15ean amaitu zen epea. Aurreko urteetan adina proiektu aurkeztu dira gutxi gorabehera: lankidetzan 28 (iaz baino 2 gehiago), eta horien artean bakarra da erakunde berria; eta 16 izan dira Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategian, aurreko urtean baino

### 2019ko diru-laguntza deialdiaren egoera

El plazo finalizó el 15 de marzo. Se ha presentado un número de proyectos similar al de años anteriores, en cooperación 28 (2 más que el año pasado), con una única entidad nueva y 16 en EpTS, uno menos que el año anterior, con 2 entidades que se han

10740n XVII

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

bat gutxiago; kasu horretan, bi erakunde aurkeztu dira lehenengoz. Zuzenketei dagokienez, aste honetan bidaliko dute Kontuhartzailetzara, berrikusteko. Saiatuko dira zuzentzeko 10 egunak Aste Santuarekin bat egin ez dezaten. Ikusten ari dira zer zuzendu asko dagoela: sinadurak, inprimaki osatu gabeak, eta abar.

Zalantza asko sortzen ari den alderdi bat argitu dute: aurreko astean justifikazioetarako plataforma aktibatu dute, baina horrek ez du esan nahi jadanik justifikatu behar denik, baizik eta soilik erabilgarri dagoela plataforma; epeak oinarrietan ezarritakoak dira. Horrek aukera ematen du justifikazio inprimakietara sartzeko, eta benetan interesgarria izan liteke kontabilitate taula edukitzea.

Galdetu dute jarri al diren Excel orriak ingelesez, frantsesez eta portugesez, eta erantzun duten ezetz, baina badutela jartzeko asmoa. Bestalde, argitu dute 2017ko proiektuen kasuan justifikazioa lehen egiten zen bezala egin behar dela, *pendrive* bat ekarriz, edo telematikoki, erregistro orokorrean.

## Larrialdietarako laguntza eta ekintza humanitarioa

Aurrez ezarritako irizpideei jarraituz, iritsi ahala esleitu dira ekintza humanitarioko partidak:

- Mundubat-en “Giza eskubideen urraketen biktima izan diren Gazako zerrendako emakume eta adingabeei laguntza psikosoziala emateko komunitate sistemak”.
- Unicefen “Funtsezko janari hornikuntza eta zerbitzuak Siriako haur eta emakume ahulenentzat”.

presentado por primera vez. Respecto a las subsanaciones, esta semana se va a enviar a intervención para su revisión. Se cuidará que los 10 días para subsanar no coincidan con semana santa. Se están viendo bastantes aspectos a subsanar, firmas, formularios incompletos, etc.

Se aclara un aspecto sobre el que está habiendo muchas dudas: la semana anterior se ha activado la plataforma para las justificaciones, pero eso no significa que haya que justificar ya, sino sólo que la plataforma ya está disponible, pero los plazos siguien siendo los establecidos en las bases. Esto da la posibilidad de acceder a los formularios de justificaicón, y podría ser realmente interesante disponer de la tabla contable.

Ante la pregunta si se han colgado los excel en inglés, francés y portugués, se explica que aún no, pero que se hará. Se aclara también que en caso de proyectos de 2017, la justificación se tiene que realizar como antes se hacía, entregando un pendriv o haciendolo telematecamente en el registro general.

## Ayuda de emergencia y acción humanitaria

Siguiendo los criterios establecidos anteriormente, se han ido adjudicando las partidas de acción humanitaria a medida que han ido llegando:

- “Sistemas comunitarios de apoyo psicosocial para mujeres y menores en la Franja de Gaza, victimas de vulneraciones de Derechos Humanos” de Mundubat.
- “Suministros y servicios esenciales de nutrición para las niñas, niños y mujeres más vulnerables en Siria”

10740n XVII

| | |
|---|---|
| • Zaporeak Solidarioak-en "Zaporeak 2019-Lesbos Elikatzen".<br><br>Horrekin, amaitu da ekintza humanitariorako eta larrialdietarako partidan dagoen aurrekontua. | de Unicef.<br>• "Zaporeak 2019-Lesbos Elikatzen" de Zaporeak Solidarioak.<br><br>Con esto, quedaría se terminaría el presupuesto disponible en la partida destinada a acción humanitaria y de emergencia. |
| **9.- Galderak eta zalantzak.** | **9.- Galderak eta zalantzak.** |
| **6.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.**<br>• Isabel Muñozen erakusketa: ""*Kongoko Emakumeak. Itxaropen bidea*", Okendo kultur etxean.<br>• Giza Eskubideen Zinemaldia (apirilaren 5-12): Calcuta Ondoan erakundearen dokumental bat eta tailer bat izango dira.<br>• Lurraldea defendatzen duten emakume indigenei buruzko jardunaldia, Cristina Enean, apirilaren 10ean, Lumaltik Herriak erakundeak antolatuta. | **10.-Informaciones varias:**<br>• Exposición de Isabel Muñoz: "*Mujeres del Congo. El camino a la esperanza*" en el CC Okendo.<br>• Festival cine y DDHH (5-12abril), en el que se incluye un documental y un taller de Calcuta Ondoan.<br>• Una jornada sobre mujeres indígenas defensoras del territorio en Cristina Enera el 10 da abril organizado por Lumaltik Herriak. |
| Beste aztergairik ez denez, 17:30ean bukatutzat jo dute bilera. | Sin más asuntos que tratar, finaliza la reunión a las 17:30h |

10740n XVII